

**ESK, CGT, CNT, Solidari y STEILAS
convocan de forma unitaria
MANIFESTACIÓN el próximo 1 de mayo.
Manifestu bateratua-manifiesto
unitario**



10

MAIATZAREN LEHENA 2016

kalera,
askatasun eta
eskubideak
berreskuratuzera

CGT

a la calle, a reconquistar derechos y libertades

MAIATZAK 1

MANIFESTAZIOA
12:00
SAN LORENZO
CGT-CNT-ESK-Solidari-STEE-EILAS
DE MAYO

¡Por el Reparto del TRABAJO y la RIQUEZA

CGT
CNT
ESK
Solidari
STEE-EILAS

LANGABEZIAREN
AURKA

Manifestu bateratua euskeraz

Krisia amaitu da. Hori da behin eta berriro errepikatzen digutena, baina krisia ordaindu genuenok orain ondorioak jasango ditugu. Prekarietatea eta

prekarietatea soilik da utzi diguten bakarra 8 urte itogarriren ondoren.

Erreforma laboralek gure lan baldintzak are urriago bilakatu dituzte. Langabezi masiboa gutxi balitz, orain lanean dauden arren bizi duin bat bermatu ezin duten pertsonen zerrenda luze bat gehitu behar dugu. Lanpostu egonkorra eta eskubideduna, zientzia fikzioa da gehiengoarentzat. Administrazioan lan egiten dutenek ere pairatzen duten egoera da. Osasunean eta hezkuntzan izandako murrizketak, langileen eta herritarren eskubideen murrizketa bihurtzen dira.

Lanpostu berriak gero eta laburragoak dira, soldatak kaskarragoak eta lan baldintzak esklabuagoak. Era berean, ezin dugu ahaztu lan prekarietateak emakume aurpegia duela, geu gara baldintza okerrenak jasaten ditugunak, gu kontratu partzial gehiago sinatzen ditugunak, gu gure gizonezko lankideak baino soldata baxuagoa dugunak, postu okerrenak eta gutxien ordainduak betetzen ditugunak eta lanaldi bikoitzak edo hirukoitzak izaten jarraitzen dugunak.

Honengatik guztiagatik eskatzen dugu egoera jasangaitz hau ahalbidetu eta lagundu duten lan erreformak indargabetzeko berehala.

Lan prekarietatea bai, baina baita soziala ere. Gure bizitzetan sartu den prekarietatea eta sistema hetero-patriarkal, kapitalista eta ingurugiroaren suntsitzaile honek ahal duen guztia egingo du bertan gelditzeko. Ez dute nahiko gu lan baldintza penagarrietan jartzearekin; horretaz gain, gizartearen erantzuna kriminalizatu nahi dute. Gure adiskidea den SAT-eko Andrés Bódaloren espetxeratzea edo Axier López kazetariari bere lana egiteagatik ezarritako isuna horren adibide garbiak dira. Bitartean gehien dutenak, horien artean 50 nafar iruzurgilek, dirutza gordetzen dute Panaman, gu atxilotzen gaituzte, etxetik botatzen gaituzte eta hesiak eraikitzen dituzte izugarrikeriatik ihes egiten dutenak hemen babesa hartu ez dezaten. Baina ez dago legerik edo mozalik gure eskubideak borrokatzen galaraziko digunik, beraien lege zentzugabeen gaineratik gaude gu, gurea dena berreskuratzeko prest. Eta errefuxiatuei beraien hesi ergelaren beste aldetik ongi etorria ematen jarraituko dugu.

Ezin dugu jarraitu biztanleriaren %1ak aberastasunaren gehiengoa pilatzea onartzen. Behartzen diguten modeloarekin behingoz amaitzea beharrezkoa da, gure bizitzak eta ongizatea zentroan jartzeko ordua da. Inoiz baino beharrezkoagoa da lana eta enplegua banatzea, denok – nahi izanez gero- lan egin ahal izateko. Baina ez bakarrik hori, lana banatzean datza eta ez miseria, lana banatu eta aberastasuna ere bai.

Gure bizitzak bizitzea merezi izatea egin behar dugu, kendu digutena berreskuratzen hasi behar dugu, burua altxatzeko unea da Frantziako lagunek egin duten moduan. bete ditzagun Kaleak amaitu dela esateko, giza eta lan prekarietatearen aurretik gure duintasuna dago!

Gora langileon borroka!!!!

Manifiesto unitario en castellano

Su crisis ha terminado. Eso es lo que nos repiten sin cesar una y otra vez pero quienes pagamos esa crisis seguiremos pagando ahora sus consecuencias. Precariedad y solo precariedad eso es lo único que nos han dejado tras 8 largos años de asfixia.

Sus sucesivas reformas laborales no han hecho más que precarizar nuestras condiciones laborales aun más si cabe. Por si fuera poco al paro masivo ahora tenemos que sumarle esa lista infinita de personas empleadas que a pesar de serlo no pueden garantizar una vida digna. El trabajo estable y con derechos es ciencia ficción para la mayoría de la ciudadanía. Una situación que también están padeciendo quienes trabajan en la administración. Unos recortes como los habidos en sanidad y educación que se traducen en una merma de derechos para los trabajadores y trabajadoras pero también para la ciudadanía.

Los nuevos trabajos son cada vez más cortos, los salarios más miserables y las condiciones laborales más esclavistas. No podemos olvidar tampoco que la precariedad laboral tiene rostro de mujer, somos nosotras las que padecemos peores condiciones laborales, nosotras quienes firmamos más contratos parciales, quienes sufrimos la asfixiante brecha salarial que hace que sigamos cobrando menos que nuestros compañeros, quienes ocupamos los peores puestos y los peor pagados y quienes seguimos teniendo dobles e incluso triples jornadas laborales.

Es por todo esto que exigimos que de una vez por todas se derogue inmediatamente las reformas laborales que han permitido y favorecido esta situación insostenible.

Precariedad laboral sí, pero también social. Una precariedad que se ha instalado en nuestras vidas y que este sistema hetero-patriarcal, capitalista y voraz con el medio ambiente hará lo posible por que se quede. No tienen suficiente con someternos a condiciones laborales pésimas sino que además pretenden criminalizar la respuesta de la sociedad. La encarcelación de nuestro compañero del SAT Andrés Bódalo o la multa impuesta al periodista Axier López por hacer su trabajo son buena prueba de ello. Mientras quienes más tienen, trileros y estafadores entre los que hay 50 navarros, esconden su fortuna en Panamá, a nosotras nos detienen, nos echan de nuestras casas y construyen alambradas que impiden que quienes huyen del horror tengan un lugar donde cobijarse. Pero no habrá mordaza ni ley que impida que sigamos exigiendo nuestros derechos, por encima de sus absurdas leyes estamos nosotras trabajadores y trabajadoras dispuestas a recuperar lo que es nuestro. Y desde el otro lado de su estúpida valla seguiremos dando la bienvenida a todos los refugiados y refugiadas.

No podemos seguir permitiendo que el 1% de la población acapare la mayor parte de la riqueza. Es necesario acabar de una vez por todas con el modelo que nos imponen, es hora de poner nuestro bienestar y nuestras vidas en el centro. Es más necesario que nunca repartir los trabajos y el empleo para que todas podamos, si queremos, trabajar. Pero no solo eso, se trata de repartir el empleo y no la miseria, repartamos el empleo sí, pero también la riqueza.

Tenemos que hacer de las nuestras vidas quemerezcan ser vividas, empecemos a

recuperar lo que nos han arrebatado, es hora de levantar la cabeza y al igual que están haciendo nuestros compañeros y compañeras en Francia llenemos las calles para decirles que se acabó, que frente a su precariedad social y laboral está nuestra dignidad.

Gora langileon borroka!!!!